



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza

Asteartea
2008-09-30

VI. URTEA 1.521. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Indusketa lanak egiten, atzo, Basagainen. I. GARCIA

INDUSKETAK AMAITU DITUZTE BURDIN AROKO HERRIXKAN

ANOETA Gaur amaituko dute aurtengo kanpaina Basagainen; ikertzen jarraitzea beharrezkoa dela dio Peñalver indusketaren zuzendariak 4



Aimar Irigoien harria altxatzen herenegun, Tolosako zezen-plazan. P.R.

AIMAR IRIGOIEN HARRI-JASOTZAILEA

«Diruak baino, irabazteak eman dit poz handia»

TOLOSA Mendeko Apustua deiturikoan, Aimar Irigoienek irabazi zuen Izeta II.aren aurka 2



Altuna anaiak omenaldiaren une batean. Atzean, frontoi berriua. HITZA

Altunatarrei omenaldi beroa, herritarren eskutik

AMEZKETA Haien izena daraman pilotalekua ere inauguratu zuten atzo; jende ugari izan zen 5

Indarra nagusitu zaio esperientziari

Kirolak » Aimar Irigoien eta Izeta II.aren arteko apustua jokatu zen herenegun Zezen-plazan; bertan, harri-jasotzaile gaztea gailendu zen.

ESTI EZEIZA

Harri-jasotzaile handi baten hasiera izan zen herenegun gozerraldia. Herri kirolen munduko historian gorri margotuta geratuko den egun horietako bat izan zen igandekoa. Aimar Irigoien, 22 urteko harri-jasotzaile gaztea, Jose Ramon Iruretagoiena, Izeta II.a beteranoari gailendu zitzaioneko.

Sarreren salneurri «oso garestia» zela iritzi bazuten ere gehienek, 3.500 lagun inguru hurbildu ziren Tolosako zezen-plazara, ikuskizunaz gozatzera. 11:00ak alderako hasi zen betetzen plaza, harriak pisatzeari orduan ekin baitzioten.

Hasieratik Irigoien alde egon zen dirua. 60-100i, 70-100i, inguru

horretan ibili ziren apustuak. Eta azken mementora arte lehia gogorra izan bazen ere, erreizildarra izan zen garaile. Zozketa egin eta gero, Izeta II.ari egokitu zitzaion nork lehendabizi altxa aukeratzera, eta honek bigarren egin nahi izan zuen. Lehen txandan, Irigoien hasi zen eta 10 minutuan 38 altxaldi egin zituen. Batzuen ustetan gutxiegi, Izeta II.a 40 egiteko gai izango baitzen. Baina aiarrak ere 38 bakarrik lortu zituen. Bigarrenean, emaitzak berdinak izan ziren. Baina hirugarrenean gauzak erabat aldatu ziren. Irigoien «hazi» egin zen jendearen animoak entzunda, eta beste behin ere erakutsi zuen «plazako mutila» dela. Izetak ezin izan zuen gainditu gazteak jarritako marka harrigarria.

«Garaipenak berak diruak baino poz handiagoa eman dit»

AIMAR IRIGOIEN » Harri-jasotzailea

Herri kirolak » Irigoien erreizildarra gailendu zen herenegun gozerraldian; 20.000 euro poltsikoratu zituen erreizildarrak.

E. EZEIZA

Garaipenaren biharamun gozoarekin zegoen atzo Aimar Irigoien (Errezil, 1986). 20.000 euro gehiago gaur poltsikoan, baina diruagatik ez ezik, beste hainbat arrazoiengatik ere dago pozik.

Zer moduzko astelehena izan duzu?

Nahiko ongi. Goizean masajeak hartu ditut eta ongi. Hala ere, uste baino hobeto geratu nintzen fisikoki. Gehiago sufritu beharko nuela uste nuen.

Zerk ematen du poz handiagoa, diruak edo garaipenak berak?

Garaipenak, joko irabazi nahi nuen. Diruari ez nion garrantzia handiegirik ematen.

Espero al zenuen irabaztea?

Banekien lan handia egin beharko nuela. Ez nekien berak zer egingo

zuen, baina nik bai. Horrenbesteko lana egin ondoren, zure buruagan konfidantza izaten duzu.

Entrenamenduetik igandekora, alderik agin al zenuen?

Bietan ere antzeko ibili naiz. Altxaldi baten diferentzia-edo ibiliko nintzen.

Zer moduz ikusi zenuen Izeta II.a?

Oso ongi aritu zen. Ongi ikusi nuen, duen adinerako lan handia egin zuen.

Azken txandan 40.aren bila joan zinen, baina 39an geratu.

Bai, 40 egin nahi nituen, baina Telleriak deitu zidanean beranduegi sartu nintzen, eta ez nuen jasotzeko aukerarik izan.

Azken txandan, Izetak II.ak irabazteko 40 altxaldi egin beharra zeuzkala ikusteak, eragina izan zuela uste al duzu?

Psikologikoki ziurrenik eragingo zion horrek. Hark 40 egin beharra zeuzkan, eta ezinezkoa zuen.

Zerbait berezia egiteko asmorik ba al duzu sariarekin?

Ez, ez dut ezertan pentsatu. Beti bezala jarraituko dut.



115 altxaldi eman zizkion denera 137,5 kiloko kubikoari; Jose Ramon Iruretagoienak baino 7 gehiago. PATXI RENOBLES



Irigoienek lagunak plazan, gaztea animatzen. P. RENOBLES



Ongi aritu bazen ere Izeta II.ak ezin izan zuen irabazi. P. R.



Bata harria jasotzen ari zenean, bestea kanpoan, zain. P. R.



Gogor lan egin behar izan zuten bi harri-jasotzaileek. P. R.



Oscar Renedo Tolosako kultur zinegotziak banatu zituen sariak. PATXI RENOBLES

3-2 galdu du Laskorainek denboraldiko lehendabiziko norgehiagokan

Areto futbol » Tolosarrek partidaren kontrola izan bazuten ere, ezin izan zituzten puntuak eskuratu.

ERREDAKZIOA

Duela bost aste hasitako aurre-denboraldi «lanpeta eta gogorari» jarraipen egokia emateko aukerari ihes egiten utzi zion Laskorain areto futbol taldeak larunbatean, Lezoko Bekoerrotako kiroldegian Aierru Algeposak aurkariaren kontra esku hutsik itzuli baitzen.

Egindako merezimenduei errepertatu gero, Alonsoren mutilek «larregizko zigorra» jasan zutela esan daiteke, izan ere, tolosarrek norgehiagokaren kontrola eraman baitzuten behin eta berri. Dena den, tolosarrek ez bezala, etxeko taldeak izandako aukerei etekin bikaina ateratzen jakin zuten.

Hasiera «kaxkarra»

Partida maldan goa ipini zen estreinako minutuetan, horitxoek 2-0eko kezka garri bat baitzuten segituan, «oparitutako bi golen ondorio legez». Baina, Tolosarrek ez zuten amorerik eman eta arierioaren atea inguratzeko erabakia hartu zuten, ondorioz hamaika aukera garbi sortuaz atezain lezotarren aurrean. Baloiak ordea, birritan soilik sartu nahi izan zuten sare barruan eta 2-2ko emaitzarekin aldagelaratu ziren bi taldeak. Saldias eta Telleria izan ziren gole-gileak.

Nor baino nor

Bigarren zatiko lehen minutuetan bi taldeen indarrak parekatu egin ziren, Aierruk zein Laskorainek markagailua desorekatzeko aukera nabarmenak garatu zituzten, baina txanpona Lezotarren aldean erori eta minutu baten faltan epai-leak adierazitako hamar metroko jaurtiketa bati esker puntuak Bekoerrotako kiroldegian geratu ziren.

Yustos, Domentxe eta Arribilaga baja izan ziren, eta atezainaren posturako, Endika eta Mikel Sanz atxekitu zaizkio taldeari. Bestalde eta jokalarik moduan, Lander Camio «hegal-pibota» izango du Alonso entrenatzaileak bere aginduetara.

Hurrengo norgehiagokan Ancla Dosampor bizkaitarrak, hots, Nazional B mailako egungo liderrak, bisitatuko du Usabalgoki kiroldegia, aurtengo lehen 3 puntuak etxeko zalegoren aurrean batzeko asotan kantxaratuko dira Alonso entrenatzaileak, Javi delegatua, Sanz, Telletxea, Saldias, Gil, Barriola, Murgi, Zabala, Camio, Telleria, Joniko, Endika eta Amatriain taldekideak.

4-1 galdu du Tolosak Aloña Mendi oñatiarren aurka

Futbol » 6 punturekin hirugarren postuan daude saillapenean tolosarrek, Real Union B taldearekin berdinduta.

ERREDAKZIOA

Oso ondo hasi zuten preferente mailako Tolosa CFk denboraldi berria, bigarrenekin, hain zuten ere, baina hirugarrengoa iritsi zaio porrota. Aloña Mendi taldearen aurkako zuten aste honetako norgehiagokak, eta 4-leko markagailuarekin, punturik batu gabe bueltatu beharra izan zuten tolosarrak Oñatitik. Ondorioz, Aloña Mendikoak lehen postuan kokatu dira zazpi punturekin, euren atzetik Real Union B taldekoak daude-larik, 6 punturekin, eta hirugarren postuan tolosarrak, 6 punturekin baita ere.

Oñatikokok partida ona egin zuten eta tolosarrek ez gertatu egin ahal izan zuten haiek gaintzeko lanetan. Hala, 8. minutuan iritsi zen etxeko lehendabiziko gola-Maiztegiaren eskutik. 20. minutuan bigarrena egin zuten Aloña Mendikoak, kasu honetan, Idigoras izan zelarik gola sartu zuena.

» SAILKAPENA

3. jardunaldia.	Puntuak
1. Aloña Mendi	7
2. Real Union B	6
3. Tolosa	6
4. Zumaia	6
5. Pasaia	6
6. Hondarribia	6
7. Aurrera O.	6
8. Idiazabal	5
9. Aretxabaleta	4
10. Trintxerpe	4
11. Arrasate	4
12. Berio	3
13. Hernani	3
14. Euskalduna	3
15. Anaitasuna	2
16. Astigarragako	1
17. Vasconia	1
18. Amaitak bat	1

2-0ekoarekin iritsi ziren atsedenaldira. Bigarren zatiko lehen gola, ordea, tolosarrek egin zuten. 56. minutuan, Dohyarzabal izan zen baloia aurkariaren sare barruan sartu zuena.

Beraz, bi taldeen arteko alde murriztu zen, eta oraindik are aukera bazuen Tolosak partidari buelta emateko. Baina, ez zen horrela izan, aurkariak golak egiten jarraitu baitzuten. Partida ama-

tzeaz zela, 86. minutuan egin zuten oñatiarrek hirugarrena, Elgarretaren eskutik, eta laugarrena ia amaituta zegoenean, 90. minutuan, Ugartek sartu zuen. Eta horrela amaitu zen partida, 4-1ekoarekin.

Serna, Lacalle, Lanceta, Telleria, Sarasibar, Gurrutxaga, Diez, Azpiroz, Blanco, Balardi eta Elgorriaga izan ziren Tolosako taldean lehen minutuan zelaira ateratzen jokalariek. Bigarren zatian hasieran Azpiroz Goyharzabalengatik aldatu zuen Jose Manuel Luluaga entrenatzaileak. Elgorriaga Ugartemendiarengatik aldatu zuen 56. ean, eta Romero Sarasibaren ordez irten zen zelaira 75. minutuan.

Aloña Menditik, berriz, Zabaleta, Garmendia, Agirre, Igarua, Idigoras, Olalde, Palacios, Arregi, Ugarte, Sanchez, I. Arregi, Zubia, Elgarresta, Lopez, Maiztegi eta Zufiriak jokatu zuten.

Hurrengo partida Berazubin

Datorren norgehiagokari dagokionez, etxean jokatu du Tolosa CFk, Berazubiko zelaietan, datorren larunbatean. Berio taldea izango dute aurkari bezala, Jose Manuel Luluaga entrenatzaileak eta jokalariek.

Hainbat ikastaro eskainiko ditu Sanatana Dharma Yoga eskolak



Yoga eskolan eskaintza zabala dute aukeran. HITZA

Gizartea » Hiru kurtso desberdin izango dira, astelehenetik larunbatera, tartean autoestimuarri buruzko berria.

ERREDAKZIOA

Tolosako Sanatana Dharma Yoga eskolak ikasturte berriari ekingo dio, urterro bezala, eskaintza zabala-arekin. Batetik, erlaxazio eta yoga

eskolak emango dituzte, goizez, arratsaldez eta gauetz, astelehene-tik ostegunera, helduei, haurrei, gazteei, haurdun daudenei eta hirugarren adinekoiei eskainiak. Larunbatean ere izango dira heldu, gazte eta ikasleentzat.

Bestetik, konzentrazio eta hausnarketa eskolak emango dituzte asteartetan 20:00etatik 21:30era eta ostiraletan 09:00etatik 10:30era eta 18:00etatik 19:30era. Azkenik, garatzeko pertsonala eta

autoestimuarri buruzko kurtsoa ere izango da, «bakea, poztasuna eta armoniarekin bat egiteko kurtso berria», hain zuten. Hau ostiraletan emango dute, 11:00etatik 12:30era eta ostegunetan, 20:00etatik 21:30era.

Izena eman nahi duenak, edota argibide gehiagorako, 943 11 86 68 telefono zenbakira dei daiteke, edo bestela, yogatolosa@hotmail.com helbide elektronikora ere idatzi daiteke.

Laburrak

Tolosako historiari buruzko ikastaroa abian

GIZARTEA » Kutxab antolatuta, Tolosako historiaren inguruko ikastaroa abina da. Bertan, ikuspegi ezberdinak jorratuko dituzte. Urriaren 9an hasiko da, eta 10 ordu iraungo ditu. Ostegunetan izango da, 18:00etatik 19:00etara Tolosako Kultur Etxean. Ikastaroa egin nahi duenak, Aulas Kutzara deitu beharko du ondorengo telefonoz zenbakira: 902 54 00 40.

Antzinako musikari buruzko ikastaroa

KULTURA » Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antzinako musikari buruzko interpretazio taller-ikastaro bat antolatu du Tolosako egoitzan. Urriaren 18 eta 19an izango da, Leonardo Garcia Alarcón zuzendariaren eskutik. Ikastaro hau urterro antolatuta ohi du Gipuzkoako Abesatzen Federazioak. Interesa dutenek aukera dute dagoeneko izena emateko, epea zabalik baitago, eta honako bideak erabili daitezke: 943 53 69 73 (goizez deitu behar da, 08:00etatik 14:00etara) edo bestela, korallak-gaf@euskalnet.net helbidea.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosak.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbolak: 943 006900

Amarozko dispena: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutzte Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarain autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udalatzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Laburrak

Nazioarteko jubilatuen txartela egiteko aukera

ANOETA ■ Alkartasuna Biltokiko zuzendaritzak azaldu duenez, aukera izango dute bazkideek jubilatuen nazioarteko txartela egiteko. Horretarako lehendakariari nortasun agiriaren fotokopia eman behar zaio. Bestalde, larunbat honetan, hilak 4, meza bat emango dute parrokian orian gutxi hil diren bi bazkideren alde, Juan Bautista Jimenez eta Jose Maria Salvador. Horrez gain, hilaren 23an promoziozko bidaia egingo dute Kantabriako bailara pasiegotara. Interea duenak izena eman dezake Biltokian bertan.

KZguneko ordutegia goizez izango da urrian

ANOETA ■ KZguneko ordutegia hemendik aurrera hilabetero txandakatuko da: hilabete batean goizez eta hurrengoan arratsalde. Urrian goizez izango da, 10:00etatik 14:00etara. Ordutegi horretan ONA txartela ateratzeko aukera izango dute herritarrek. Bestalde, GIMP programari buruzko ikastaroa, Photoshopen antzekoa, antolatuko dute. Zortzi orduko ikastaroa izango da, lau egunetan banatuta eta beraz bi orduko saioak izango dira. Urrian goizez (10:00-12:00) edo azaroen arratsalde (18:00-20:00) izango da eta ez da dirurik ordaindu behar ikastaroa egiteko. Izena eman daiteke udaletxean edo kiroldegian eta azke eguna horretarako urriaren 10a izango da.

Ohizkanpoko bilkura egingo du Udalak bihar

ANOETA ■ Udalak ohizkanpoko bilkura egingo du bihar, 19:30ean, eta gai zerrenda puntu bakarra izango du. Bertan «Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoera» salatzeko mozioa eztabaidatuko dute. Hurrengo egunean, hilak 2, ohiko bilkura egingo du Udalak, baita ere 19:30ean.

Peñalver: «Basagainen ikerketak egiten jarraitzeak merezi du»

Anoeta ■ Basagain Burdin Aroko herrixkaren aurtengo indusketa kanpaina gaur amaituko dutela dio zuzendariak.

IMANOL GARCIA

Anoetako Basagain Burdin Aroko herrixkan urtero irailan egiten duten kanpainaren amaieran daude. Zehazki, gaur amaituko da eta Xabier Peñalver indusketaren zuzendariak azaldu duenez, «material asko atera da, denetarik». «Basagainen urtero gauzak aurkitzen ari gara eta garbi ikusten dugu merezi duela ikerketekin jarraitzeak», zehaztu du zuzendariak eta gaineratu: «Entzuten da garai horri buruz dena dakigula, baina ez da horrela eta ikertzen jarraitu behar dugu».

Aurkitutako materialak sofistikazio puntu bat duela azaldu du Peñalverrek eta horrek Burdin Aroko beste herrixkekin merkataritza harremanak izan zirela erakusten du. Bestalde, etxebizitzaren erabilpen handia eta manipulazio handia egon zela «Basagainen», dio Peñalverrek. Aurkitutako materialak sofistikazio puntu bat duela azaldu du Peñalverrek eta horrek Burdin Aroko beste herrixkekin merkataritza harremanak izan zirela erakusten du.

Bestalde, etxebizitzaren erabilpen handia eta manipulazio handia egon zela «Basagainen», dio Peñalverrek. Aurkitutako materialak sofistikazio puntu bat duela azaldu du Peñalverrek eta horrek Burdin Aroko beste herrixkekin merkataritza harremanak izan zirela erakusten du.

Izan ere, etxebizitzak laukiak zirela uste zen, baina orain borobilak edo borobiltasunen bat izan dezakeela pentsatzen dute.

«Ikerketaren hasieran»

Basagain leku garai batean dago, harresiz inguratua. Azken urteotan hamabost eguneko kanpainak egiten ari dira irailan. Etxebizitzak izan zituzten harresien baitan eta horixe ari dira ikertzen azken kanpainetan.

Gipuzkoan 25 urte daramatzate Burdin Aroko herrixkak ikertzen (tardean Albiztur eta Tolosa artean dagoen Intxur herrixka) eta egun lanean ari dira bi lekutan. Horieta-ko bat da Basagain eta bertako zuzendaria da Xabier Peñalver eta bestea Muñoiandi da eta Azpeitia eta Azkoitia bitartean dago. Bertan

zuzendari lanetan Sonia San Jose aritzen da.

«Orain 25 urte ezerezetik hasi ginen. Orain nahiko informazio dugu, baina horrek ez du esan nahi dena dakigunik, ezta gutxiago ere», azaldu du Peñalverrek. «Ikerketaren hasieran gaude». Medite-

rraneoako isurialdea dagoen informazio askoz handiagoa dela dio Basagaineko zuzendariak, baina Atlantikoko isurialdeko herrixketan orain gutxi hasi direnez, jasotzen ari diren informazioa ugaria dela zehaztu du. Peñalverrek ere azaldu du indusketak posible direla Diputazioak eta Anoetako Udalak ematen duten diru laguntzaren bidez.



Etxebizitzaren eremua ikertzen ari dira azken kanpainetan. I. GARCIA



Lagun batzuk, atzo, indusketaren gune batean. I. GARCIA



Zeramika zatiak maiz aurkitzen dituzte indusketan. I. GARCIA



Sonia San Jose eta Xabier Peñalver, atzo, Basagainen. I. GARCIA

Kilometroak 2008

Irurra

Lagundu erakitzen, lagundu jaiegun paregabea erakitzen, lagundu Irurako ikastola berria erakitzen, lagundu herria euskaraz erakitzen.

urriaren 30an Irurari gaituztu zure zain -A, ez ahaztu, hobe inoeraz etortzen bazara!!!

Erabili dezagun gurea publikoak. Guztiontzat erosoena.

renfe

www.kilometroak.net

ALTUNATARREN EGUNA

Amezketak » Imanol eta Garikoitz Altuna anaiak omendu zituzten sorterrian eta haien izena eramango duen frontoia inauguratu zuten.

NEREA URBIZU

Herenegun Amezketan Altuna anaiak omendu zituzten, Ergoneko edo Goiko frontoiko inaugurazioarekin batera. Erremontistek «pozik» hartu zuten albiste eta hala zeuden herenegun ere.

Egunari hasiera emateko erremonte partida bat jokatu zuten Larrunarri pilotalekuan: Altuna I-Badiola eta Altuna II-Agirrezabala aritu ziren eta azken bikotea izan zen garaile, 40-37 emaitzarekin. «Borrokatu izan zen, partidapolita eta bizia», Jexus Iñurritza alkatearen hitzetan. Bertaratu zirenguztik asko gozatu ahal izan zuten. Alkatea ere «pozik» zegoen, dena oso ondo joan zelako.

Bazkaria Ergoneko frontoian egin zuten, hemendik aurrera Altuna Anaiak frontoia izango dena,

hain zuzen ere. «250 lagun bildu ginen bertan».

Altuna sendiko sei ume eta gaztetxok arku egin zieten frontoira sartu aurretik, erremonteko zestoekin eta pilotariz jantzita. Ondoren herriko dantzari batek *Agurra* dantzatu zien. Bixente Gorostidi eta Unai Muñoa bertsotan aritu ziren eta erremontistei eskaini zizkieten. Txapel bana eman zien alkateak gero, bertan herritarren izenean eskerrak emanez, eta baita plaka bat ere.

Altuna I.aren zestoa Udaletxean

Imanol Altunak agur esango dio erremonteari datorren larunbatean, Galarreta pilotalekuan. Altuna I.ak, honen aurrean eta herenegungo omenaldia aprobetxatuz,



Jexus Iñurritza alkatea, Garikoitz Altunari oparitutako txapela janzen. Atzean Imanol Altuna. HITZA

berak erabiltzen duen zestoetako bat Udalarri oparitu zion. Alkateak esan bezala, «Udaletxean lekua egingo diogu, oroigarri gisa jarriko dugu».

Bukatzeke, urriaren 4eko parti-

da (larunbata) herritar guztiei eskainiko diela aipatu zuen Imanol Altunak, eta denak gonbidatu nahi izan zituen. Galarretan izango den partidara joan nahi duen ororentzat txartelak eskaini zituen, herri-

tarrak gonbidatuz. Joateko interesa duenak, Sasturain tabernan jaso ahal izango ditu txartel hauek, Imanol Altunaren erremonteko azken partidak ikusteko, hain zuzen.

Jaiak bukatu badira ere, jai usainak jarraitzen du

Jaiak » Irurako eta Aldabako San Miguel jaiak atzo bukatu ziren, eta bietan «poza zaporea» gelditu da emaitzekin.

N. URBIZU

Asteburuan Irurako eta Aldabako jaiak izan dira eta horiek, hasi bezala bukatu ere egin dira. San Miguel jaietan eguraldia lagun izan dute aurtien ere: epel eta argitsu.

Herenegun Iruran apar-festa, bazkaria, haurrentzako jolasak, trikitilariak eta mariatxien emandaldia izan zituzten. Atzo, berriz, herensugea erretzeko eguna izan zuten, festen bukaera iragarritz. Atzo musika izan zen ia ekitaldi guztietan: txistulariak, dantzari txikien saioa musikarekin, noski, Loatzo Musika eskolako emandaldia, eta Rua Mayor musika eta dantza taldea. Kale antzerkia ere izan zen, eta asko animatu zuen jendea emandaldi honek.

Bi asteburuetan zehar izan dira jaiak Iruran: irurarrentzat herriko jaiak bukatu egin dira, baina ez da triste ikusten jendea, beste festa berezi bat baitute datorren igandean: Kilometroak, eta ezin da ukatu hari begira daudela, ez orain bakarrik, aspaldi baizik. Horren ondoren, urriaren 12an, hain zuzen, jubilatuta eta pentsiodunen eguna ospatuko dute. U dazkena hasteko hilabete osatua antolatu dute Iruran.



Atzoko hamaiketakoan 50 bat lagun bildu ziren Aldabako Intxur pilotalekuan. N. URBIZU



Iruran, atzo izan zen kale-antzerkiaren une bat. I. GARCIA

» ALDABAKO IGOERA

Gizonezko azkarrenak

- **Lehenegoa.** Iban Eskisabel (Tolosa, 12'24).
- **Bigarrena.** Iker Esnal (Zumarraga, 13'31).
- **Hirugarrena.** Joseba Garitano (Antzuola, 13'38).
- **Aldabako azkarrena.** Iñaki Zendoia (16'59).

Emakumerik azkarrenak

- **Lehenegoa.** Sorkunde Beloki (Aldaba, 21'16).
- **Bigarrena.** Ainhoa Puldain (Alegia, 21'50).

Gaztetxoaren mailan

- **Lehenegoa.** Karlos Moreno (Tolosa, 23'42).
- **Bigarrena.** Jon Luzuriaga (Aldaba, 24'29).

Aldabarako aldapa, «erraz»

Aurtien lehen aldiz txirrindulari igoera antolatu dute Aldaban eta parte-hartzearekin «oso pozik» daude bertakoak: 34 lagun animatu dira, eta ez Tolosaldeko jendea bakarrik, Euskal Herriko beste hainbat txokotatik ere hurbildu baitziren. Markarik onena Iban Eskisabel tolosarrak jarri du, 12 minutu eta 24 segundo behar izan zituelarik 4 km eta 700 metro egiteko. Datorren urtean ausarten bat espero dute Aldaban, marka on hori gainditzeko.

Atzo meza ospatu ondoren, frontoian hamaiketako bikaina prestatu zuten Festa Batzordekoek: txorixoa, salda beroa (hartu zutenek bikaina zegoela zioten)... 50

lagun inguru bildu ziren, eta arratsaldean, ipuin kontalaria izan zen, aurretik abixatu bezala, «berandua go». Katering bidezko afaria ere antolatu zuten eta 60 lagun inguru elkartu ziren.

Aldabako Festa Batzordea aritu da Aldabako festak antolatzen, eta aurtengo emaitzarekin «pozik» daude, batez ere, txirrindulari igoeraren erantzunarekin.

Iluntzean, Intxur auzo elkartearen eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmena sinatu zuten Aldaban, Berpiztu planak jasotako auzotarren beharrei aurre egiteko.

G Gutunak

Presoen diru laguntzen inguruan

Zenbait komunikabideetan Udal honetako udalkideak gezurtizat eta kartzelarizat jo dira eta hori argitu nahian ondorengo hau adierazi nahi dugu:

2002. urteko azaroaren 18an udalak Udal Ordenantza bat onartu zuen Estatu Espainiarrean zeuden presoen senitartekoei garraio diru laguntzak emateko. Horien arabera, 0,11 zentimo/km ordaintzen ziren bidaiak. 2003. urtean Udalak zorrotz bete zuen ordenantza hori. Gaur egun ez dago Ibarren errolaturiko presoen senitarteko zuzenik, eta hori da eskakizun nagusia diru laguntza lortu ahal izateko.

Egun ez dago udal ordenantzarik ere, ezeztatu egin baitzen. Ez dugu ulertzen nola litekeen egia modu horretan erabiltzea, engainatzea eta aldatzea eta areago guri kartzelero deitzea, Ibarra izan dezan familia horiei gehien lagundu dien herrietakoa.

Ez dazilegi hainbeste manipulazio, izan ere, presoen bi familiak bidaietako diru laguntza kobratu baitute eta Udalak eskatu die dirua itzultzeko Ibarren errolaturik ez daudelako eta hori ezinbesteko baldintza da. Argi utzi nahi dugu Ibarroko Udalak ez duela zuzeneko betebeharririk Ibarren bizi ez eta zergak ordaintzen ez dituztenekin.

Chelo Romeo (Ibarroko alkatea).
Ibarra.

AEKk hainbat taldetan lekua duela gogoratu du

Ikastaroak » Irurako, Amasa-Villabonako eta Zizurkileko taldeetan oraindik ere tokia dagoela esan du euskaltegiak.

ERREDAKZIOA

Ikasturte berria hastear dagoen honetan, Tolosaldeko AEKk matrikula epea irekita duela eta oraindik ere hainbat taldetan lekua dagoela jakinarazi du. Iruran eta Amasa-Villabonan erdiko maila-

rako lekua dute oraindik eta Zizurkilen hasiera-erdiko eta hasierako mailetarako. Aipatu ikastaroak urriaren 6an hasiko dira eta, beraz, urriaren 3ra arte egongo da izena emateko epea zabalik. Izen-ematea egiteko bide jarri dituzte; Irurra, Amasa-Villabona eta Zizurkilgo Udaletara gerturatzea edota Andoaingo AEK euskaltegira jozte berata gerturatuaz, Extremadura kalea, 5 behea helbidera, edota 943 59 17 04 telefonora deituta. andoain@aek.org helbide elektronikora ere idatzi daiteke.

Laburrak

Kontuen Batzorde Berezia, egongo da bihar

AMEZKETA » Amezetako Udalak azaldu duenez, Kontuen Batzorde Berezia izango da bihar, urriak 1, Udaleko erabilera anitzeko gelan, 20:30ean. Bertan 2009ko Tasa eta Udal Ordenantza Fiskalak eta Kreditu aldaketaren espedienteak izango dituzte hizpide.

Animalia eta Barazki Azokarako izen ematea

ALEGIA » Alegian datorren urriaren 19rako antolatuta duten Animalia eta Barazki Azokan parte hartzeko izen-emate epea zabalik dago eta urriaren 10an amaituko da. Herriko Udalak jakinarazi duenez, interesa duenak Kultur Etxera jo behar du.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Erretiratu Eguna «polita» izan dute

LEABURU-TXARAMA » Urteroko moduan Leaburu-Txarraman Erretiratu Eguna ospatu zuten pasa den igande honetan. Egun osoan zehar izan zuten zeregin, izan ere, Meza Nagusia eta gero udalerriko dan-

tzarien emanaldia izan zuten, eta baita Toka Txapelketa eta bazkaria Zazpi Bide ere. Bazkaria eta gero trikitilariak ere izan zituzten. Bertaratutakoek «oso egun polita» pasa zutela diote. **HITZA**

Jokalari gazteenekin egin behar izan zieten aurre donostiarrei

Ibarra » Ibarrokoek partiduaren atzerapena eskatu arren, lehiaketa-batzordeak ez zuten onartu eta 4-2 galdu zuten.

ERREDAKZIOA

Ibarroko areto futboleko taldeak derbia jokatu zuten igandean Donostiako UPV-Interren aurka eta 4-2 galdu zuten. Ibarrokoek, dituzten baja guztiak ikusita, partidua atzerapena eskatu zuten ostira-lean, baina lehiaketa-batzordeak ez zuten onartu eta ondorioz oraindik ere guztiz osatu gabeko jokalariren batek ere jokatu behar izan zuten.

Hori dela eta, Ibarroko jokalariek gazteenekin egin behar izan zion aurre partiduari eta lehenik zelairatu ziren bostak hauek izan ziren: Igor Zabalo, Aritz Otaegui, Ion Garmendia, Loitzun Sanz eta Aitzol Oyarbide. Victor Silva eta Ruben Etxart ere aritu ziren.

Oyarbideren lehen gola

Eguneko lehen gola Ibarrokoena izan zen; zortzigarren minutuan Aitzol Oyarbidek gauzatuakoa. Ibarrokoek bazekiten irabazi ahal izateko erritmoa eurek zehaztu beharko zutela eta lortu zuten, hasieran behintzat. Lehen zatia bukatzeko bi minutu falta zirela Donostiakoekin binakako berdinketa lortu zuten, hala ere.

Bigarren zatian UPV-Inter nahiko gogotsu ateraz eta 26. eta 27. minutuetan aurrea hartu zieten ibarrokoek Aritz Francoren



Azken bi partidak galdu ditu Ibarroko areto futboleko taldeak. **HITZA**

eta Mauro Ayerzaren jokaldiei esker. 33. minutuan Ibarrokoek 3-2 emaitza lortu zuten Ion Garmendiaren golari esker, baina 37. minutuan Aritz Francok gola sartu eta 4-2 emaitza lortu zuten.

Esan behar da, era berean, Ibarrokoen zuzendaritza nahiko minduta dagoela lehiaketa-batzordea-

rekin. Izan ere, euren hitzetan azken bi partiduak (Burlatakoa eta igande honetako) ez dira batere garbiak izan eta igandeko partidua hasi baino lehen, gainera, ez zieten agurtu. Honetaz gain, partiduan zehar bestelako «detaile lotsagarberik» ere izan zutela argitu dute Ibarrokoek.



Bidegorriaren inaugurazio ekitaldian herritar ugari elkartu zen Zizurkil eta Asteasu arteko ibilbidean. HITZA

Ernioaldea Udaltalde 21ak balantze «oso ona» egin du asteburuko ekitaldiei buruz

Mugikortasun Astea »

Jende ugari izan zen bai bigarren eskuko merkatuan bai bidegorriaren ibilaldian.

IMANOL GARCIA

Ernioaldea Udaltalde 21eko koordinatzailea den Eburne Zudairek balantze «oso ona» egin du asteburuan Mugikortasun Astearen baitan egindako ekitaldiekin. Bai Villabonan egindako bigarren eskuko merkaturak bai Zizurkil eta Asteasu bitarteko bidegorriaren inaugurazio-ibilaldia «arrakastatsuak» izan direla azaldu dute.

Larunbatean izan zen bigarren eskuko azoka eta bertan uneoro «mugimendua» izan zela azaldu du Zudairek. «Herritarrek aurten material gehiago utzi dute eta badirudi ohitura bat sortzen ari dela merkatu honekin». Oraindik kontuak egiten ari dira, baina argi da goiena da material merkeena saldu



Villabonako Berdura plazan egin zen bigarren eskuko azoka. HITZA

zela lehenengo. Datorren urtera begira ere merkaturak antolatzeko asmoa dute.

Ehun lagun inguru ibilaldian

Herenegun egin zuten herritarrek Zizurkil eta Asteasu bitarteko bidegorriaren inaugurazioa. Eguraldiak lagunduta, jende ugari joan

zen bi herrien arteko ibilaldira, ehun bat inguru, antolatzaileren esanetan.

Batez ere familia giroan izan zen parte-hartzea. Zizurkiletik abiatu ondoren Asteasura iritsi eta bertan hamaiketako egin zuten. Gero, pixkanaka parte-hartzaile bakoitzak bueltako bidea hartu zuen.

Josu Castañaresek irabazi du hirugarrenez

Zizurkil » VII. Zaldi Lasterketa egin zuten herenegun; bigarrena Iñaki Garmendia orendaindarra izan zen.

I. GARCIA

Beste behin Josu Castañares eta bere zaldia *Bixkor* izan ziren azkarrenak. Zizurkilgo VII. Zaldi Lasterketa zegoen jokoan eta aurreko bi urteetan bezala, Elgoibarko zaldun eta zaldia izan ziren bizkorrenak zaldi lasterketetan dagoen zirku itzularrenak. Asier Mujika antolatzaileak azaldu duenez, «maila handiko lasterketa izan zen, oso ikusgarria».

Orain arteko parte-hartzaile kopuru handiena izan zen igandeko lasterketan. Guztira 21 zaldun eta zaldi aritu ziren lehian eta parte-hartzaileen maila oso altua izan zen. «Orain arteko maila handiena izan da», dio Mujikak.

Josu Castañaresen atzetik Iñaki Garmendia orendaindarra sailkatu zen eta hirugarrena Igor Castañares izan zen, irabazlearen anaia. Finalerako sei azkarrenak sailkatu ziren. Probari hasiera ematerakoan, Josu Castañares ez zen oso argi egon eta azkeneko postuan hasi zen. Iñaki Garmendia izan zen lehen postuan, baina bigarren itzulirako aurrea hartu zion Josu Castañaresek eta bukaeraraino eutsi zion lehen postuan.



Josu Castañares eta bere zaldia, Zaldi Lasterketaren beste edizio batean. HITZA

Eskualdeko pultsulariak Galdakao Trofeoan

ERREDAKZIOA

Danena-Olaederra Halterofilia taldeko pultsulariak parte hartu zuten Bizkaiko Galdakao herrian, bere izena eramaten duen Trofeoan, lehiaketa polita egin. Espainako txapelduna eta errekorra duen Ivan Garciak (Gaztela eta Leon taldekoa) eraman zuen saria. Pultsulari honek Europako eta Munduko Txapelketan parte hartu du eta oso emaitza onak lortu ditu.

Kataluniako taldearekin Ruben Viudezek parte hartu zuen. Pul-

tsulari honek Espainiako txapelketan Danenako Teddy Martinezi irabazi zion, baina kasu honetan Martinezek errebantxa hartu zion eta hirugarren postuan utzi zuen kataluniarra. Danenako Ekaitz Kortajarenak Elbarrenan egin zuen saioa baino kaxkarragoa egin zuen eta bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Aste osoan ezin izan zuen ondo entrenatu. Oso trofeo polita ikusteko aukera izan zuten eta Danena-Olaederra taldeak antolatzailak zorian dituzte horregatik.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Amezketeta.** Kultur Astea antolatzeko hilaren 30ean, astearte, bigarrena egingo dute balioanitzeko gela 20:30ean.

■ **Tolosa.** Tolosako Caritasek mantak eta lo zakuak behar ditu. Bere egoitzan, parroki etxearen ondoan, entregatu daitezke.

■ **Alegia.** Urriaren 19an egingo den II. Barazki eta Animalien Azokarako izen-ematea Kultur Etxean egin daiteke. Beharrezkoa da, egun bertan zer material beharko den zehaztu ahal izateko.

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Fandango eta arin arin ikastaroa antolatu du Udaberri dantzari taldeak urriaren 2tik aurrera, astean ordu bateko kiroldegian. Izan-ematea, Udaberriren lokalean 18:00etatik 20:00etara edo udaberri@udaberri.com helbidean.

Irteerak

■ **Tolosa.** Iturriza jubilatutako elkarteak (Euskal Herria plaza) Iratxera irteera antolatu du urriaren 30ean. Bazkaria Iratxe hotelean, dantzaldia eta opari zozketa izango da. Izan-ematea, elkartearen 34 eurotan (36 ez bazkideek).

Musika

■ **Tolosa.** Tolosako Orfeoien 10. urteurreneko ospakizunen baitan, Tolosan eskaini zuen lehen obra plazaratuko dute berriro urriaren 18an Leidor aretoan: Jesus Guridiren *El Caserio*. Sarrerak salgai daude Kutxaren webgunean eta zinemako leihatilan.

Musika

■ **Tolosa.** Jose Luis Urdapilletaren argazki erakusketa izango da ikusgai azaroaren 8ra arte, Aranburu jauregian.

■ **Tolosa.** Sukru Karakus artista turkiarraren pintura erakusketa Aranburu Jauregian.

■ **Tolosa.** Rosa Maria Gullonen margoak ikusgai daude egun hauetan Lanbroan, oleo eta espaltula metodoarekin eginda.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 673649.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

■ **Irurtzun.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.



Dendaren ordutegia zabaldu dute

TOLOSA ■ Kilometroak 08ko egitasmoen baitan, Tolosako Alde Zaharreko Kale Nagusian dagoen dendak gaurtik ordutegia zabalduko du. Hauxe izango da ordutegi berria: astelehena arratsaldetan 17:00etatik 20:00etara; asteartetik ostiralera goizez 10:00etatik 13:00etara eta

arratsaldez 17:00etatik 20:00etara. Azkenik, larubatetan goizez 10:00etatik 13:00etara egongo da zabalik. Arratsaldeetan itxita egongo da. Bertan topatu ahaliko dira Kilometroaren harira merkatura ateratu dituzten produktu ezberdinak, jantziak nahiz osagarriak. I.GARCIA

A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Milla esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitizan: Udaletxeko bulegoa

